

# KANALAK

Proiektu hau aurrera ateratzeko laguntza pixka bat beharko da. Horretarako, proiektu honen partaideak laguntza eskatzera joango dira, eta lagundu nahi duten horiei proiektuaren berri eman behar diete. Posta bidez izan daiteke ezaguna bada, edo bestela laguntza eske joatea enpresa batera. Partaide hauek ezingo lukete dena egin, beraz, partaideei laguntza eskatuko liekete. Gainera, lokalaren aurrean kartel handi bat jarriko da, horrela norbaitek ikusiz gero, laguntzeko aukera izango lukete.

Horrez gain, publizitatea ere erabiliko da proiektuaren berri emateko, horrela jende gehiagoren eskuetara iritsiko da berria eta laguntza emateko jende gehiago egongo da prest. Publizitate hori hainbat modutara egin daiteke: sare sozialen bidez edo eta iragarki bidez. Sare sozialak erabiliz, kartel bat egingo litzateke eta iragarki bidez egiten bada, berriz, bideo moduko bat lokala eta bertako jarduerak erakutsiz.